



IP bidezko telefoniaren bidez deitu ahal izateko ez da zertan ordenagailuaren mikrofoniak egin, Internetera konektatutako telefonoak erabil daitezke. **BERRIA**

Ahotsak mugarik ez duelako

IP bidezko teknologiarik eskertu daian dei daitezke munduko bazter gehienetara eta, ohiko telefonia konpainiekin alderatuta, diru asko aurreztu daitezke Skype bezalako softwarearekin.

MIKEL CARRAMIÑANA
Bilbo

Esan ohi da Internet sareari esker komunikazioak ez duela inolako mugarik. Zalanza handirik ez dago posta elektronikoki eta interneteko solasgune zein messengerren moduko softwareei esker, iraultza ikaragarria gertatu dela munduan, baina, egia da, halaber, Internetek dituen abantaila guztiak teknologiak berak mugatzen dituela. Ezinezkoa da, esate baterako, Internet konexiorik ez duen lagun bati posta elektronikoki bat helaraztea, eta are zailagoa da munduaren beste aldeko herrixka bazter batean bizi den pertsona batekin messengerrean aritzea, informatikaren iraultza, agian, haraino heldu ez delako. XXI. mendeko teknologia ahalguztidunak bazuen, hartara, gainditu beharreko oztopo garrantzitsua, komunikazio digitaletik analogikora lotura ezartzea, eta, duela 5 urte, Skype izeneko konpainiak lortu zuen hori.

Aurreko mendearen bukaeran,

■ INTERNET BIDEZKO TELEFONIA

Helbidea	Sistema eragilea	Ordaintzeko bideak	Aukerak
Gizmo Project www.gizmo-project.com	Windows, Mac eta Linux	Visa eta Mastercard	Deiak egin eta jaso
Skype www.skype.com	Windows, Mac, Linux, Windows Mobile	Paypal, Ukash, Click&Buy, transferentzia	Deiak egin eta jaso, bideo dijak, sms
VoipBuster www.voipbuster.com	Windows, Mac, Linux	Visa, Mastercard, Paypal, Ukash, transferentzia	Deiak egin, sms
Yahoo! Voice es.voice.yahoo.com fr.voice.yahoo.com	Windows	Visa eta Mastercard	Deiak egin eta jaso



People Call eta Yahoo Voice dira aplikaziorik erabilienetakoa. **BERRIA**

Internet sarea zabaltzen hasi zenarako, aski ezagunak ziren bat-batean komunikatzeko tresnak, IRC eztabaida gelak, MSN messenger eta hauen antzeko beste hamaika software. Garai batean, Interneteko atari eta bilatzaile nagusiek eskaintzen zituzten halakoak,

Skype konpainia izan zen IP bidezko telefonia eskaintzeari ekin zion lehenengoa, 2003. urtean



baina P2P softwareerik ezagunetarikoa baten sortzaileei, Kazaa, bururatu zitzaizkien ordenagailu batek bestera deitu ez ezik, ordenagailutik etxeko edo sakelako telefonoetara deitzea aukera berriro zabaldu eta zoragarria izan zitekeela, are gehiago, ohiko telefonia enpresek kobratzen duten baino askoz ere merkeago eskaintu. Horrela jaio eta zabaldu zen VoIP protokoloa, IP bidezko telefoniak darabilena alegia.

Azken urteotan, telefono kon-

painiak areagotu egin dira, eta gehienek ematen dute aukera, Internet konexioarekin batera gehienetan, telefono finkoetarako deiak doan egiteko. Bestelako kontua da sakelako telefonoetara edota atzerriar egiten diren telefono deiengatik kobratzen dutena. Horrelako deiak garestiak izaten dira, eta are gehiago beste herrialde batean da goen lagunari sakelakora eginikoak. IP bidezko deiak egiten direnean, herrialde batetik besterako mugak desagertzen dira. Etxeko ordenagailutik Txinara deitzea ondoko bizilagunari deitzea bezalakoa da, ahotsak egiten duen ibilbidearen aldetik zein, konpainiaren arabera, salneurrietan.

AURREZTEKO. Consumer Eroski erakundeak duela hilabete gutxi zabalduko ikerketa baten arabera, IP bidezko teknologiarik bidez deitzea, ohiko telefoniarekin baino askoz ere merkeagoa izan daiteke. Telefono finkoetara eginiko deietan, batez bestez %83 merkeagoa da Telefonicarekin deitzea baino (Euskaltekin batera, Hego Euskal Herriko telefonia konpainia nagusia). Sakelako telefonoetara deitzeko orduan ere dira merkeagoak Gizmo bezalako softwareak erabiltzea eginiko deiak, %56 batez bestez. Alderik handiena atzerriar deitzen denean dute erabiltzaileek.

Euskal herritarren arteko deietan ere diru dezente aurreztu dezake IP bidezko telefoniak, Interneten muga administratiboak desagertzen direlako. Esaterako, Bilbotik Baionara ohiko konpainiarekin 5 minutuko deia egiteak 0,72 euroko kostua dauka. Yahoo Voice aplikazioarekin, aldiz, hamar aldiz gutxiago: 0,07 euro.

IP bidezko telefoniaren akatsik handiena, hasiera batean behintzat, ordenagailuaren aurrean hitz egin beharra zen, mikrofonoaren bidez eta bozgorailuak piztuta. Erabiltzaile asko, informatikan trebeak ez direnak batez ere, atzerri egiten zuten ohiko telefonoaren bidez deitzea askoz erosagoa dela ikusita. Pixkanaka, traba txiki horiek gailentzen joan dira Skype eta enparauak, izan ere, USB konexioarekin ordenagailuan erraz txerta daitezkeen telefono ugari salgai jarri dituzte. Egun, VoIP motako softwarea etxetik ere atera daiteke, ordenagailu eramangarri, PDA edo smartphone tramankuluei esker. Mundu osoan Wi-Fi sareak zabalduko balira, sakelako telefonoek egun darabilten teknologia soberan egongo litzateke.

Deiak egiteaz gain, bestelako zerbitzuak garatu dituzte aplikazio hauek: bideo bidezko deiak, ahots postontzia, deiak jasotzeko zenbakiak, SMS mezuak bidali eta diru transferentziak, bestek beste. VoipBuster, Yahoo Voice, Gizmo Project eta, noski, Skype dira IP bidezko deiak eskaintzen dituzten konpainia ezagunetarikoa batzuk, urteotan beste hamaika sortu dituzten arren, Jajah eta Peoplecall, esaterako.

■ VOIP KONPAINIEN KOSTUA

Skype

- **Finkoetara.** 0,02€.
- **Sakelakora.** 0,22€ Hego Euskal Herrian eta 0,16€ Iparraldean. SMS: 0,12€/0,11€

Yahoo Voice

- **Finkoetara.** 0,01€.
- **Sakelakora.** 0,17€ Hego Euskal Herrian eta 0,15€ Iparraldean.

Gizmo Project

- **Finkoetara.** 0,02€.
- **Sakelakora.** 0,26€ Hego Euskal Herria eta 0,21€ Iparraldean.

VoipBuster

- **Finkoetara.** Doan, saldoa izanez gero.
- **Sakelakora.** 0,21€ Hego Euskal Herria eta 0,14€ Iparraldean. SMS: 0,06€/Doan

*Minutuko salneurriak zergarik gabe.

IP bidezko deiak egiten direnean, herrialde batetik besterako mugak desagertu egiten dira